# Gehiago Pierre Urteren gramatikaren iturriez: Lilyren gramatika

Ricardo Gómez

▶ **To cite this version:**

Ricardo Gómez. Gehiago Pierre Urteren gramatikaren iturriez: Lilyren gramatika. ASJU, 2010, 44 (2), pp.335-365. <artxibo-00624672>

**HAL Id: artxibo-00624672**

**https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00624672**

Submitted on 19 Sep 2011

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Gehiago Pierre Urteren gramatikaren iturriez: Lilyren gramatika

Ricardo Gómez

UPV/EHU & JUMI

**Laburpena**

*Pierre Urtek* Grammaire cantabrique *idatzi zuen 1714 inguruan, Ingalaterran erbesteratua zelarik. Artikulu honetan frogatu nahi dugu Urtek lan hori idazteko erabili zuen iturri nagusia "Lilyren gramatika" izenekoa izan zela,* XVI*. mendetik* XIX*. mendera arte Ingalaterran latina ikasteko erabili zen gramatika ofiziala. Iturri hau identifikatzeak berresten digu Urteren gramatika hizkuntza irakaskuntzaren tradizioan sartu behar dela, Oyharçabalez (1989) geroztik susmatzen zenez. Gure lanean, "Lilyren gamatika"-ren historia laburbildu ondoren, Urtek erabil zezakeen edizio zehatza aurkitzeko urrats batzuk ematen ditugu; azkenik, artikuluaren atal nagusian, bi gramatika-lanak aurrez aurre jartzen ditugu, "Lilyren gramatika"-rekiko zorra ziurtatzeko eta Urtek bere iturri horretatik hartu zituen zati nagusiak (hala gramatika-sailkapenak nola adibideak) zehazki erakusteko asmoz.*

**Hitz gakoak:** gramatikagintzaren historia, iturriak, euskal gramatika, Pierre Urte (1664- ????), XVIII. mendea, Lilyren gramatika, latinaren irakaskuntza.

**Abstract**

*Pierre Urte wrote* Grammaire cantabrique *circa 1714, when he was exiled in England. In this article we want to prove that the main source for Urte's work was the so-called "Lily's grammar", which was the oficial grammar to learn Latin language in England from the 16th to the 19th century. The indentification of that source allows us to support the claim that Urte's grammar must be included in the tradition of language teaching, as was already pointed out by Oyharçabal (1989). In this article, we first offer a brief history of "Lily's grammar". Then, we provide some clues in order to identify the exact edition used by Urte. Finally, in the main section of the article, we confront the two grammatical works; our aim is to ensure Urte's debt to "Lily's grammar", and to show in detail the principal parts which Urte took from his source (mainly grammatical clasifications and examples).*

**Keywords:** history of gramaticography, sources, Basque grammar, Pierre d'Urte (1664- ????), 18th century, Lily's grammar, Latin teaching.

# 1 Sarrera[1]

Azken urteotan Pierre Urteren *Grammaire cantabrique* lanari buruzko berri onak izan ditugu.[2] Lehenengoz eta behin, 2008ko abuztuan Sotheby's enkante-etxe britaniarrak enkantean jarri zituen Urteren gramatika eta hiztegia.[3] Sei liburukitan bildutako eskuizkribua Gasteizko Antso Jakituna Fundazioak erosi zuen urrian, izenik eman gabe (ik. Fernández D'Arlas 2008), eta gaur egun haren liburutegian gordetzen da, ZRV-3470 signaturapean. Antso Jakituna Fundazioak 2009ko maiatzaren amaieran, Betoñuko egoitza berria irekitzearekin batera, eskuizkribua haren eskuetan zegoela eta egoitzan erakutsiko zutela jakinarazi zuen (ik. Diario de Noticias 2009 eta egun haietako beste zenbait hedabide). Gainera, hilabete batzuk geroago Fundazioak gramatikaren eta hiztegiaren bertsio digitalizatuak utzi zituen denon eskura Interneten.[4]

Bigarrenik, Gidor Bilbaok (2008) ordu arte ikertu gabe zegoen Urteren gramatikaren ereduen aztertzeari ekin dio, lapurtarrak zenbait atal Claude Mauger hizkuntza-maisuaren frantses gramatikatik, edo haren tradiziotik, hartu zituela frogatuz. Zehazki, nomenklaturaren zati batzuetan, "Arduraco Hizguntçac - Phrases Familiaires" eta "Behardiren Gauçac Escatçeco - Pour Demander les Choses Necessaires" ataletako hainbat esaldi laburretan, eta solas gehienetan aurkitu du Bilbaok Maugerren eragina Urteren gramatikan.

Azkenik, Josu M. Zulaikak (2009) Urteren gramatikari buruzko hainbat datu interesgarri ezagutarazi ditu; izan ere, Gottfried W. Leibniz jakintsu saxoniarraren eta John Chamberlayne hizkuntzalari britaniarraren arteko gutunak azterturik, Zulaikak lortu du jakitea Urtek 1714an gramatikan lanean zegoela Chamberlayneren enkarguz (2009: 327-328). Oroit bedi

---

[1] Lan hau Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako "*Monumenta Linguae Vasconum* (III): crítica textual, lexicografía histórica e historia de la lengua vasca" (FFI2008-04516) ikerketa-proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako "Historia de la lengua y lingüística histórico-comparada" (IT486-10) ikerketa-taldearen babespean egin da. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Beñat Oyharçabal, Blanca Urgell eta Josu Zulaikari, lan honen zirriborroari egindako iruzkinengatik eta izan dugun ideia-trukeagatik. Mila esker, orobat, UPV/EHUko Arabako Campuseko Liburutegiko M. Lourdes Sáenz de Castillori, artikulu honetan erabilitako zenbait lan helarazteko egindako zuzemenengatik.

[2] Urteren gramatikari buruzko aurreko ikerketei buruz, ik. Bilbao (2008: 129, 5. oh.).

[3] Hilabete batzuk lehenago, 2008ko martxoan, enkante-etxe berak Urtek egindako *Testamentu Zaharr*eko zati batzuen itzulpena atera zuen enkantean, eskuizkribua Jose Maria Arriola notario eta liburuzale bizkaitarrak erosi zuelarik (ik. Argüello 2008). Urteren eskuizkribu guztiak Shirburn gazteluan zegoen Macclesfield-eko konteen liburutegi osoaren enkanteari zegozkion.

[4] *Grammaire cantabrique* helbide honetan dago: http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2105 (2009/09/30ean sartua); *Dictionarium Latino cantabricum* beste honetan: http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2176 (2009/10/22an sartua).

Websterrek 1712an datatu zuela Urteren gramatika, pentsatu baitzuen, Urtek amaitu zuen lan bakarra izanik, abiatu zuen lehena ere izan behar zuela. Websterrek susmatu zuen 1706an Ingalaterrara iritsitakoan hasi zela Urte gramatika idazten eta, sei bat urtez lan egin ondoren, 1712an burutuko zuela (Webster 1900: ii-iii). Halaber, Paul Ernst Jablonski orientalistaren beste gutun bati esker, Zulaikak ondorioztatzen du 1716an Urteren gramatika argitaratzeko asmoa izan zitekeela (Zulaika 2009: 341-344).[5]

Urteren gramatikaren eskuizkribua sareratu zenean, Websterren edizioarekin gaingiroki erkatzeari ekin genion, funtsean —baina ez zeharo— ondo transkribatu zela egiaztatu genuelarik.[6] Gaur egun eskuizkribua eskuragarri dugunez gero, espero izatekoa da laster haren edizio egokiago bat izatea. Bien bitartean, artikulu honen helburua askoz xumeagoa da: Maugerren tradizioarekiko zorra ezagutu ondoren, gure asmoa da Urteren gramatikaren beste iturri baten berri ematea, XVI. mendeaz geroztik Ingalaterran latina ikasteko erabili zen gramatika ofiziala, “Lilyren gramatika” izenaz ezagutzen dena alegia.

## 2 Urteren beste iturri bat: Lilyren gramatika

### 2.1 Urteren iturriez eta helburuez

Gidor Bilbaok ohartarazi zuenez, “Mauger ez da nahikoa Urte ulertzeko, baina ezinbestekoa da” (2008: 135). Halaber, ildo onetik abiatu zen honako hau adierazi zuelarik, lehenago Oyharçabalek (1989: 69)[7] proposatutako bide beretik: “Urteren lana Maugerren eskuliburuaren tradizioko hizkuntza-ikasbideen historiari loturik aztertu beharko da engoitik” (Bilbao 2008: 136). Ziurrenik, ezin dugu Lilyren gramatika erabat sartu Maugerren

---

[5] Urteren gramatikaz aipatutakoak ez ezik, Zulaikaren artikuluak beste aurkikuntza garrantzitsu batzuk egiten ditu, hala nola Urteren hiztegiaren eredua *Linguae Romanae Dictionarium luculentum novum* (Cambridge, 1693) izan zela (2009: 320-323), edo Nicolas Fréret-en *Essay d’une grammaire de la langue basque* Urterenaren garaikidea dela (2009: 341-342) ohartzea —orain arte Fréreten eskuizkribua datatu gabe baitzegoen (cf. Hurch 2002: 95)—.

[6] Gogoan izan Websterrek ez zuela Urteren eskuizkribu originala erabili, Miss Margaret Lee-k Oxfordeko Bobdelian Libraryn egindako kopia bat baizik. Websterrek asmoa zuen transkribapena gero originalarekin erkatzeko, baina ez zuen horretarako aukerarik izan, berak aitortu zuenez (Webster 1900: iii-iv, viii). Bidenabar esanda, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean dagoen aleak —J.U. 2946 signatura duenak— eskuz egindako zuzenketak ditu, norbaitek (Julio Urquijok berak?) Urteren eskuizkribuarekin erkatu ondoren idatziak.

[7] Cf. Oyharçabal (1989: 69): “la grammaire de P. d’Urte est avant tout un relevé de formes classées selon les paradigmes en usage dans les grammaires pédagogiques de l’époque. Il s’agit d’un ouvrage de praticien et non d’une grammaire d’analyse, encore moins d’une grammaire raisonnée […]. L’influence des grammaires d’enseignement est sensible, bien que d’Urte n’indique point de façon explicite qu’il envisage sont travail comme une méthode d’apprentissage”.

eskuliburuaren tradizio berean: alegia, hizkuntza bat baino gehiago konbinatuz haien gramatika —gehienbat oinarrizkoa—, hiztegiak —alfabetikoak zein gaikakoak— edota hizkuntzaren adibideak —solasak, fraseologia, gutun-ereduak, otoitzak, etab.— eskaintzen zituzten ikasbide eleaniztunak, XV. mendetik, latinak *lingua franca* gisa indarra galdu ahala, Europa osoan arrakasta handia izan zuen genero bat osatu zutenak (ik., hainbaten artean, Rossebastiano 2000).

Aitzitik, Lilyren gramatika, Urtek gehienik baliatzen duen zatia bederen, latina ikasteko gramatika bat da (gainerakoa nagusiki ingelesaren gramatika izanik; ik. beherago). Hortaz, bai Maugerren lana, bai Lilyrena lan didaktikoak dira; honek agerian uzten digu Urtek bere gramatika ontzeko hautatu zituen ereduak garai hartan oso ezagun eta arrakastatsuak ziren bi gramatika didaktiko izan zirela: ordu hartan Ingalaterran frantsesa ikasteko eta latina ikasteko erabiltzen ziren gramatikak, hurrenez hurren.[8] Horrela, are ziurragoa begitantzen zaigu orain Urteren gramatikaren helburua ere didaktikoa izan zitekeela, euskararen deskribapen edo analisi baten eskaintze soila baino.

## 2.2 Lilyren gramatika

"Lilyren gramatika" deiturikoaren historia zail da laburtzen,[9] hiru mendetan zehar hainbat aldiz eta izenburu desberdinak erabiliz argitaratu zelako, tarte horretan mota askotako aldakuntzak jasan zituelako eta, besteak beste, egiletasun arazoak ere izan dituelako. Allen-ek (1954: 86) historia honetan aintzat hartu behar diren bertsioen zerrenda ematen du:

(1)

1. Colet's *Aeditio*.
2. Lily's *Rudimenta*.
3. Lily's *De constructione*.
4. Lily's *De generibus nominum*.
5. *An introduction of the eight parts of speech*, later entitled *A short introduction of grammar*.
6. *Institutio compendiaria totius grammaticae*, later entitled *Breuissima institutio grammatices cognoscendae*.

---

[8] Maugerren lanaren arrakastaz, ik. Bouton (1972); Bilbaok (2008: 131-132) Maugerren edizioen historia laburtu du.

[9] Ziurrenik, Lilyren gramatikari buruzko informazio osoena, eta ondorengo lan askoren iturri zuzena edo zeharkakoa dena, Watsonek (1968 [1908]) eta batez ere Flynnek (1939, 1943) eman dute. Hala ere, Watsonen lanak huts franko ditu. Ez dugu Flynnen doktorego-tesia kontsultatzerik izan, baina 1943ko artikuluak tesian Lilyren gramatika-lanez esandakoak laburbiltzen ditu. Nolanahi ere den, aurkezpen argien eta ordenatuena, gure ustez, W. S. Allen-ena da (Allen 1954).

Hortaz, abiapuntua 1509-1510 inguruan koka daiteke, John Colet (1467 - 1519) Londresko St. Paul katedraleko deanak eskaturik, William Lilyk (1468? - 1522) latina ikasteko oinarrizko sintaxi-lan bat idatzi zuenean, katedralari atxikitako ikastetxe sortuberrian erabil zedin. Colet-en *Aeditio* izenarekin ezagutzen den obra hau lehenbizikoz 1527an argitaratu zen,[10] Colet eta Lily hil ondoren; liburuaren gunean, Coletek perpausaren zortzi atalen aurkezpena egin zuen[11] eta Lilyk, aldiz, aipatutako sintaxi laburra eskaini zuen,[12] biak ingelesez idatziak, liburuaren izenburua gorabehera:[13]

(2) *Ioannis Coleti theologi, olim decani diui Pauli, aeditio. una cum quibusdam G. Lilij Grammatices rudimentis, G. Lilij epigramma*, [Antwerp: C. Ruremond? for G. van der Haghen], MDXXVII [1527]. [Ezagutzen den ale bakarra San Petersburgoko Katedralean dago].

Thomas Wolsey kardinalak beste bertsio bat inprimarazi zuen Ipswich-eko eskolan erabiltzeko, lehen aldiz 1529an argitaratu zena. Wolseyren gramatikak *Aeditio*-ren bigarren partea jasotzen du, Lilyren sintaxia alegia:

(3) *Rudimenta grammatices et docendi methodus non tam scholae Gypsuichianae per reuerendissimum. D. Thoma[m] cardinale[m] Ebor. feliciter institutae q[uam] o[mn]ibus aliis totius Anglie scholis prescripta*, [Southwark]: Excusum per me Petrum Treueris, anno verbi incarnati milesimo quingetesimo vigesimo .ix. die mesis Iunii quarto [1529].

*Rudimenta* gutxienez 1536, 1537 eta 1539an ere berrargitaratu zen, hiruretan Antwerp-en (Belgika), ordurako Wolsey hilik eta Ipswicheko eskola deuseztaturik zeudela (Flynn 1943: 97). Nolanahi ere den, badira urterik gabeko beste bi edizio, *Aeditio*-ren bigarren zatiaren izenburua bera ere hartu zutenak (ik. 12. oh.):

(4)

a. *Guilielmi Lilii Angli Rudimenta Paruuloru[m] Lilii nuper Impressa [et] correcta*, [York: U. Mylner, 1516?].

b. *Guillelmi Lilii Angli rudimenta Paruulorum Lilii nuper impressa*, [London: J. Byddell, 1538?].

Hurrenik, Lilyk *De octo orationis partium constructione libellus* sintaxi-lana idatzi zuen latinez, Colet-ek katedraleko ikastetxean erabiltzeko Linacre's *Progymnasmata grammatices* arbuiatu ondoren (Allen 1954: 88, Padley 1976: 24). Inoiz *Libellus*-en egilea Erasmo izan zela pentsatu bada ere, Rotterdamgoak lana berrikusi egin zuen, besterik ez (Flynn 1943: 99,

[10] Lanaren datazioa liburuaren hasieran azaltzen den Coleten gutunaren amaieran oinarritzen da: “Vale ex aedibus meis, Calen. Augu. An. M.CCCCC.IX”.

[11] Izenburu honekin hasten da: “An introduccyon of the parthes of speking, for chyldren & yonge begynners in to latyn speche”.

[12] Honela abiatzen dena: “Guillelmi Lilij Angli Rudimenta”.

[13] Colet eta Lilyren lanen edizio guztien aipamenak *Early English Books Online* (*EEBO*) datu-base bibliografikotik atera ditugu. Zenbaitetan, informazioa osatzeko, *English Short Title Catalogue* (*ESTC*) datu-baseaz baliatu gara.

Watson 1968: 248-250).[14] Hauek dira *EEBO* datu-basean agertzen diren bertsio honen argitalpenak:

(5)

a. *Libellus de constructione octo partium orationis*, Londini: Impressus per Richardum pynson Regiu[m] impressorem, Anno incarnationis dominice. Millesimo quigetesimo decimottio [1513].

b. *Absolutissimus de octo orationis partium constructione libellus emendatus per Erasmum Roterodamu[m]. Item Gerardi Listrij de conctructionis [sic] octo figuris: cui adheret (ne quis de[s]ideret) Sulpi[ciu]s*, Londini: Excudebat VVynandus de VVorde, Anno. M.D.XXXIII [1533].

c. *De octo orationis partium constructione libellus, aeditus a Guil. Lilio emendatus ab Eras. Roter. & scholiis no[n] solum Henrici Primaei, ucium etiam doctissimis Leonar. Coxi illustratus*, Londini: ex officina Thomae Bertheleti regii impressoris. Cum priuilegio ad impremendum solum, Anno. M.D. XL [1540].

Lilyren egiletasuna daraman azken lanak latinez eta bertsotan idatzitako bi poema biltzen ditu eta *De generibus nominum* izenaz aipatu ohi da:

(6) *Guilelmi Lilii grammatici & poetae eximii, Paulinae scholae olim moderatoris, de generibus nominum ac verborum praeteritis & supinis regulae pueris apprime vtiles. Opus recognitum & adauctum cum nominum ac verborum interpretamentis, per Ioanne[m] Rituissi scholae Paulinae praeceptoris*, [Southwark: P. Treveris, 1528?].[15]

Azkeneko bertsio batek arrakasta handia izango zuen, 1540an Henrike VIII.ak eskolarako gramatika bakarra hautatu baitzuen, XVIII. mende amaiera arte latinaren irakaskuntzaren ia erabateko monopolioa[16] lortuz (Rousse & Verrac 1992: 340). Hau dela eta, gramatika horri "Errege Gramatika" izena ere eman zaio. Erregearen baimenarekin argitaratu zen lehena latinez idatzitako gramatika bat izan zen:

(7) *Institutio compendiaria totius grammaticae quam et eruditissimus atq[ue] idem illustrissimus rex noster hoc nomine euulgari iussit, ut non alia q[uoque] haec una per totam Angliam pueris praelegeretur*, Londini: [Ex officina Thomae Bertheleti ...], M.D.XL [1540].

Bi urte geroago, erregearen onarpena zuen beste gramatika-lan bat argitaratu zen ingelesez, latinezkoaren sarrera gisa (cf. Allen 1943: 89):

(8) *An introduction of the eyght partes of speche, and the construction of the same compiled and sette forthe by the commau[n]dement of our most gracious souerayne lorde the king*, Londini: In officina Thomae Bertheleti ..., M.D.XLII [1542].

---

[14] Padleyk (1976: 24) iradokitzen du —ziurrenik zuzen— egilea Erasmo zela pentsatzeak obra honek Europan zehar izan zuen arrakastan lagundu zuela, 1513 eta 1595 bitartean ia berrehun aldiz berrargitaratu baitzen, horietarik lau baino ez Ingalaterran. Izan ere, *Libellus* sintaxi-lana egilearen izenik gabe argitaratu zen, Erasmok ez Lilyk ez baitzuten egile gisa agertu nahi izan (Allen 1954: 87).

[15] *EEBO* datu-basean 1533, 1535 eta 1539ko edizioak ere agertzen dira.

[16] Kontrako erantzunik ez zen falta izan, halere. Esate baterako, 1675ean proposamen bat aurkeztu zen Lorden Ganberan, Lilyren gramatikaren ofizialtasuna bertan behera uzteko, baina ez zuen aurrera egin (Flynn 1943: 111). Halaber, ikus bedi Richard Johnsonen 1706ko lanaren izenburu ezin adierazgarriagoa: *Grammatical commentaries: being an apparatus to a new National Grammar: By way of animadversion upon the falsities, obscurities, redundancies, and defects of Lilly's system now in use…* (London: S. Keble); cf., orobat, Rousse & Verrac (1992: 356, 3. oh.).

Laster bi zatiak lotuta inprimatzen hasi ziren, zati bakoitzak bere azala eta signaturak edota orrien zenbakiak izan ohi bazituen ere:[17] (1) *An introduction of the eyght partes of speche*, geroago *A short introduction of grammar* deitua, ingelesez idatzia eta funtsean Coleten *Aeditio*-ren bi zatiei zegokiena, eta (2) *Institutio compendiaria totius grammaticae*, geroago *Brevissima institutio seu ratio grammatices cognoscendae* deitua, latinez idatzia eta honako lau atalez osatua: ortografia, etimologia (hots, hitzen inflexioa), sintaxia eta prosodia.[18] Hasieran obra osoak *An introduction of the eyght partes of speche* deitura hartu zuen,[19] baina 1548az geroztik *A short introduction of grammar* izenburua izan zuen; bistan denez, ingelesezko zatiaren izenburuak izena eman zion obra osoari.[20] Allenek (1954) xeheki aztertu zituen gramatikaren bi zatien iturriak eta egiletasun arazoak. Luzexka bada ere, merezi du haren ondorioak hona aldatzea, Allenen hitzek atal honetan aztergai dugun lanaren zailtasunez ederki ohartarazten baitigute:

(9) To sum up, both halves of ‘Lily’s Latin Grammar’ were the work of a committee possibly the same committee in both cases, possibly not, and both were derivative: they were originally published separately, first the Latin, then the English, and later republished as one work without common title-page, with the English in front. The English, variously entitled *An introduction of the eyght partes of speche* and *A short introduction of grammar*, owes its framework and a great deal of its substance to Colet’s *Aeditio* and Lily’s *Rudimenta*. Some additional matter was derived from Lily’s *De constructione*, but what other sources may have been used we do not yet know. The Latin, variously entitled *Institutio compendiaria totius grammaticae* and *Breuissima institutio grammatices cognoscendae*, is original in arrangement but shows considerable similarity in substance and language to earlier grammars. It embodies the whole of Lily’s *De generibus nominum*, and, if we infer correctly from similarities, borrows extensively from Linacre’s *De emendata structura Latini sermonis*, from Melanchthon’s *Elementa latinae grammatices*, and, for examples, from Despauterius’s *Grammatica*. It bears occasional resemblance to Lily’s *De constructione*, Erasmus’s *Paraphrasis in elegantiarum libros L. Vallae*, Listrius’s *De octo figuris constructionis*, and, to an extent still to be investigated, to *Certayne briefe rules of the regiment or construction of the eyght partes of speche*. It may also borow some facts from Aldus’s *Institutiones grammaticae*, but in altered language. (Allen 1954: 99-100)

“Errege Gramatika” hainbat aldiz berrargitaratu zen XVI. eta XVII. mendeetan (*EEBO*n 1700 arteko ehun bat edizio jasotzen dira); berrargitalpen horietan aldakuntza batzuk sartu ziren, batik bat materialen aurkezpenari zegozkionak, edukiei berei baino (Michael 1970: 22). Orobat, ingelesezko itzulpena gehitzen zuten edizio laburtuak atondu ziren, hala nola *Lillies*

---

[17] Allenen arabera (1954: 89), 1574an Londresen “by the assignes of Frauncis Flowar” inprimatu ziren lehen aldiz bi parteak lan bakar gisa, eta orrien zenbaki eta signatura jarraituak erabiliz (baina bigarren zatiaren hasieran azal bat ipiniz, halere). Nolanahi ere den, hurrengo edizio askok gorde zituzten berriro ere bi zatiak bereiz.

[18] Egituraren azalpen xehea aurki daiteke Flynnen artikuluan (1943: 108-109).

[19] *EEBO*n izen horretako 1542 (ezagutzen den zaharrena; cf. Flynn 1943: 105), 1543, 1544 eta 1546ko edizioak azaltzen dira; Flynnek ez du 1546koa aipatzen (1943: 109-110).

[20] Rousse & Verrac-ek (1992: 340) *A short introduction of grammar* izenburua aurrenekoz 1549an agertu zela diote, baina *EEBO*n 1548ko edizioaren azala eta lehen orrialdeak ([s.l.: R. Wolfe]) kontsultatu ahal izan ditugu, edizio horretatik gorde diren zati bakarrak alegia (cf. Flynn 1943: 110).

*rules construed wherunto are added Tho. Robertsons Heteroclites…* izenburua zutenak. Lilyren gramatika, 1758an *Eton Latin Grammar* eraldaturik, erabiltzen jarraitu zen XIX. mendean zehar (Flynn 1943: 112, Padley 1976: 24).

## 3 Urtek erabili zuen edizioaren bila

Ezbairik gabe, Urtek *Brevissima institutio* latinez idatzitako zatia erabili zuen nagusiki bere gramatikaren eredu gisa. Izan ere, hurrengo atalean xehekiago erakutsiko dugunez, Urteren *Gramaire cantabrique*-ren eta *Brevissima institutio*-ren arteko paralelo nabarmenak aurkitu ditugu honako zati hauetan: izenaren akzidenteak, izenen konparazioa, adberbio motak, juntagailu motak, interjekzio motak, sintaxia eta figurak (ik. §4).

Hala ere, ingelesezko lehenengo zatitik ere izan bide zuen zer profitatu. Hain zuzen ere, oso litekeena da hortxe aurkitzea Urtek, sintaxian eta beste atal batzuetan, hitzen ordena markatzeko letrak eta ikurrak erabiltzeko ideia. Horrela gaztigatzen da Lilyren gramatikako "An advertisement to the reader" atalean:

(10) In this Impression, for the greater profit and ease both of Master and Scholar, in the English rules, and in the Latin Syntax, those words, wherein the force of each example lieth, are noted with letters and figures, where need is: the governour, director or guider, or that which is in place of it, with an [a]; the governed, or that which is guided by it, with [b]: Or if there be more governours, the first with [a], the second with [aa]; and so if more governed, the first with [b], the second with [bb]: and sometimes *the order is directed by [a b c]; or by figures and words of the same and such like nature*, coupled together with little stroaks between, so much as may be. [Azpimarratua gurea da]

Hona ingelesezko sintaxitik ateratako adibide bat ("The concords of Latin speech", f. D):

(11) Si cupis [a] placere [b] magistro, [a] utere diligentiâ; nec [a] sis tantus [b] cessator, ut [b] calcaribus [a] indigeas, *If thou covet to please thy master, use diligence; and be thou not so flack, that thou shalt need spurs*.

Eta hona Urteren gramatikako adibide bat (*ca.* 1714 [1900: 427]):

(12)
a b c
Il regarde a ma maniere de parler.

b c a +
Ene mintçatceäri beguirátcen dió.

Bistan da ez direla sistema guztiz berdinak: izan ere, Lilyren gramatikaren helburua latinezko gobernatzaile-gobernatu erlazioa markatzea delarik, Urterena frantsesaren eta euskararen hitz ordena desberdinak agerraraztea da; gainera, Lilyren gramatikak *a* eta *b* letrak baino ez ditu erabiltzen, eta Urtek behar adina baliatzen ditu, esaldiak duen osagai kopuruaren arabera, baita aditz laguntzailea markatzeko "+" ikurra ere. Guztiarekin ere, nahiz eta ezin dugun ziurtasun osoa izan, baliteke Urtek bere gramatika ontzeko erabili zuen iturri nagusian aurkitzea berean hitzen ordena erakusteko sistema ere. Zernahi gisaz, Urteri berari egotz

geniezaioke halako sistema baten asmakuntza edo aitortu genezake oraindik ezagutzen ez dugun beste iturri bat (gutxienez) izan zuela, edota, agian ziurrago, lapurtarrak latina ikasteko baliabide pedagogiko gisa ezagutu zuela; gogoan izan, esaterako, Donemiliagako glosa gehienak hitz ordena markatzeko letrak (*a*, *b*, *c*…) direla (cf. Rico 1978 eta Bustos Tovar 2000) eta hitzen hurrenkera letrak edo zenbakiak indize gisa erabiliz markatzeak ohitura nahiko hedatuta izan behar zuela, gure testu tradizioan *Refranes y sentencias*-ek erakusten duten moduan (Lakarra 1996; cf., halaber, Lakarra 1994: 881).

Lilyren gramatika hainbestetan berrinprimatu zenez, zentzuzkoa da pentsatzea Urtek argitalpen aski berri bat erabili zuela, eta ez askoz lehenago argitaratutako bat. Eskuratu ditugun katalogo bibliografikoetan, 1699 eta 1714 bitarteko[21] hainbat edizio idoro ditugu, baina tamalez ezin izan ditugu guztien testuak kontsultatu. Hauek dira kopia digitalizatuei edo fotokopiatuei esker erkatu ditugun argitalpenak:

(13)

a. *A short introduction of grammar generally to be used. Compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latine tongue*, Cambridge: Printed by John Hayes, Printer to the University, Anno Dom. 1699. [*EEBO*: "Reproduction of original in the William Andrews Clark Memorial Library, University of California, Los Angeles"]

b. *A short introduction of grammar. Compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin Tongue*, London: Printed by Will. Norton, Printer to the King's most Excellent Mahesty, in Latin, Greék and Hebrew, 1699, cum privilegio. [*EBBO*: "Reproduction of the original in the University of Illinois Library, Urbana, Illinois"]

c. *A short introduction of grammar generally to be used. Compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin Tongue*, London: Printed by Rog. Norton, Printer to the King's most Excellent Majesty, in Latin, Greek and Hebrew, 1699, cum privilegio. [*EBBO*: "Reproduction of original in the Bodleian Library". Aurrekoaren beste emisio bat dirudi; *Brevissima institutio* zatia falta zaio]

d. *A short introduction of grammar, generally to be used; compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin tongue. To which are added useful observations by way of comment out of ancient and late grammarians*, Oxford: At the Theater, 1699. [*EBBO*: "Reproduction of original in Huntington Library"]

e. *A short introduction of grammar. Compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin tongue*, London: Printed by Will. Norton, 1702. [HathiTrust Digital Library: "Original from New York City Public Library", http://hdl.handle.net/2027/nyp.33433082275821]

f. *A short introduction of grammar generally to be used; compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin tongue. To which are added usefull observations by way of comment out of ancient and late grammarians*, Oxford: At the Theater, 1709. [Oxfordeko Unibertsitateko Library of the Taylor Institution-en dagoen alea baliatu dugu, Google Books-en aurki daitekeen digitalizazioaren bidez (http://books.google.com/books?id=tdoFAAAAQAAJ)]

[21] Bi urte horiek hautatzea ez da guztiz arbitrarioa izan: dakigularik, 1699an Pierre Urte Londresen zegoen (Urkizu 1989: I, 48) eta 1714ko martxoan dagoeneko gramatikan lanean ari zen (Zulaika 2009: 327).

g. *A short introduction of grammar generally to be used, compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin tongue*, London: Printed by William Norton, Printer to the Queens most Excellent Majesty, in Latin, Greek and Hebrew, 1710, cum privilegio. [*EEBO*ren arabera "Reproduction of original in the British Library", baina ez dut haren katalogoan aurkitu; *ESTC*ren arabera, ordea, Indiana State University, University of Illinois eta University of Oregon-en daude argitalpen honen aleak; *EEBO*n kontsultatu dugun ale digitalizatuak azala eta 6 orrialde besterik ez du.]

h. *A Short Introduction to Grammar, compiled and set forth for the bringing up of all those that intend to attain to the knowledge of the Latin tonge*, London: Printed by Roger Norton, printer to the Queens most Excellence Majesty, in Latin, Greek and Hebrew, 1712, cum privilegio. [British Library-n]

i. *Brevissima institutio seu Ratio grammatices cognoscendæ, ad omnium puerorum utilitatem praescripta: quam solam Regia Majestas in omnibus scholis docendam praecepit. Additis subinde observationibus utilissimis, ex Despauterio, Alvaro, Sanctio, Vossio, Busbeio &, quotquot nuper scripsere, grammaticis Latinis; quae universam artem grammaticam exhauriunt*, Oxonii: È Theatro Sheldoniano, An. Dom. MDCCXIV [1714]. [Oxford University Library-n]

Goiko zerrendan ikusten denez, kontsultatu ditugun 1699-1714 bitarteko edizioak Cambridge-n (13a), Londresen (13b, c, e, g, h) eta Oxford-en (13d, f, i) argitaratu ziren.[22] Oro har, edizio horietako testuen arteko aldea ez da oso handia; alabaina, argitaralekuen araberako zenbait diferentzia aipagarri aurkitu ditugu. Lehenik eta behin, esanguratsua iruditzen zaigu Lilyren gramatikako sintaxiak Oxfordeko edizioetan dituen azken bi atalek Urteren gramatikan islarik ez izatea: "De Syntaxi figurata" (152-165. or.) eta "Sylvula verborum diversae structurae" (166-189. or.), alegia. Honek iradokiko luke Urtek beste leku batean argitaratutako edizio bat erabili zuela; izan ere, Londresen eta Cambridge-n inprimatutakoek ez dituzte aipatu bi atalak, bi adarretan 106-107. orrialdeen artean kokatuta egon beharko zuketenak.

Datu guztien arabera, Oxfordeko adarrak sartu zituen sintaxiaren amaierako bi atal horiek, haren berrikuntza bat izanik. Baina noiz azaldu ziren lehen aldiz? Oxforden argitaratuta ezagutzen dugun lehenengo edizioa 1636koa da eta hor falta dira (ik. 106-107. or.); aldiz, kontsultatu ahal izan dugun hurrengo edizioak, 1672koak, dagoeneko bi atalak barneratu zituen (152-189. or.).[23] Ohar bedi sintaxiko bi atal berriak sartu arte hiru argitaralekuetan agertutako edizioek orrialdeen zenbakitze berdin-berdina zutela; hau da, edizio horietan

[22] XVI. mendetik Ingalaterran argitaratutako edizio gehienak, alde handiz, Londresko inprimategietatik atera ziren. Kontsultatu ditugun katalogoen arabera, Cambridgen inprimatutako lehenengo edizioa 1621ekoa da ("Imprinted by Cantrell Legge, printer to the Vniversitie of Cambridge"), eta Oxforden inprimatutako lehena 1636koa ("Printed by William Turner, printer to the famous Universitie").

[23] Bien artean, beste bi edizio besterik ez zaigu agertu katalogoetan: 1651ekoa eta 1654koa ("printed by L.L. and H.H. printers to the University").

guztietan,[24] lerroren bat gorabehera, orrialdez orrialde ere testu berbera aurkitzen dugu, nahiz eta zenbait arrazoirengatik —esaterako, letra kapitalak, izenburuak, ertzetako glosak, etab.— nabari izan edizio desberdinak direla, eta ez edizio baten emisio desberdinak.

Bestalde, sintaxiko bi atal erantsiak ez ezik, Oxfordeko 1672ko edizioak, eta argitaraleku bereko hurrengoek ere, badute beste berrikuntza garrantzitsu bat: testu guztia oharrez inguratuta dago. 1672ko *Brevissima institutio*-ren izenburuari honako hitz hauek gehitu zitzaizkion: “additis subinde observationibus utilissimis, ex Despauterio, Alvari, Sanctio, Vossio, Busbeio & quotquot nuper scripsere grammaticis Latinis”; orobat, gorago erakutsi dugunez (ik. 13d eta f), Oxfordeko 1699ko eta 1709ko *A short introduction of gramar*-ekoari beste hauek: “To which are added useful observations by way of comment out of ancient and late grammarians” (1709: “usefull”). Urteren gramatikan ez dugu aurkitu ohar horien zantzurik eta, beraz, honek ere pentsarazten digu Urtek ez zuela erabili Oxfordeko edizio garaikiderik (ik., orobat, 49. oin-oharra).

Aurreko biak —sintaxiko atal erantsiak eta inguruko oharrak— bezain erabakigarria ez bada ere, aipa dezagun Urtek zein edizio erabili zuen igartzeko bidean jarri ahal gaituen beste desberdintasun bat. Londresko 1710eko edizioari “An advertisement to the reader” atala falta zaio; bertan azaltzen da latinezko adibideetan gobernatzaile-gobernatu erlazioa adierazteko erabiliko den sistema (ik. 10). Haatik, Urtek 1710eko edizioa erabil zezakeen eta testuan zehar agertutako adibideetan oinarria hartu (ik., adibidez, 11) bere gramatikan hitz ordena adierazteko era bururatzeko.

Atal honetan azaldutako guztiaren ondoren, oraingoz ezin izan dugu ziurtasun osoz identifikatu Pierre Urtek bere gramatika idazteko erabili zuen Lilyrenaren edizio zehatza. Hala eta guztiz ere, argitalpen garaikide bat erabili zuela pentsatzen badugu —zentzuzkoena baitirudi—, Oxforden inprimatuak (13d, f, i) baztertu beharko genituzke segurki. Bestalde (13c)-n aipatu dugun Londresko 1699koa (13b)-koaren beste emisio bat bada, kontsultatu ditugun edizioetatik bost aukera hauek geratzen zaizkigu: Cambridge-ko 1699koa (13a) eta Londresko 1699koa (13b, c), 1702koa (13e), 1710ekoa (13g) eta 1712koa (13h). Lehenago esan bezala, edizio hauetan guztietan, 1702koan izan ezik, orrialde bakoitzean sartzen den testu zatia ia berdina da, lerroren bat gorabehera; hortaz, irakurlearen erraztasuna bilatu

[24] Kontsultatu ditugun edizioetarik salbuespen bakarra Londresko 1702koa da, bertan liburu osoan orrialdeen zenbakitze bakar eta jarraitua agertzen baita.

nahian, hurrengo atalean erabiliko ditugun orrialde zenbakiak Londresko 1699ko edizioari dagozkio.

## 4 *Brevissima Insitutio* eta Urte aurrez aurre

Hirugarren atalaren hasieran aurreratu dugunez, Urteren gramatikaren (aurrerantzean, *GC*) eta *Brevissima Institutio*ren (aurrerantzean, *BI*) arteko antzekotasun nabarmenenak honako zati hauetan erabilitako terminologian eta adibideetan aurkitu ditugu: izenaren akzidenteen segida (§4.1), izenen konparazioa (§4.2), adberbio motak (§4.3), juntagailu motak (§4.4), interjekzio motak (§4.5), sintaxia (§4.6) eta figurak (§4.7). Atal honetan, banan-banan aurkeztu eta aztertuko ditugu bi gramatika-lanen arteko paralelotasunak. Urteren aipamenak eskuizkribuari (*ca.* 1714) dagozkio, Antso Jakituna Fundazioak sareratutako bertsio digitalizatua erabili baitugu;[25] gutxitan bada ere, Websterren edizioan errata batzuk aurkitu ditugu eta horregatik nahiago izan dugu zuzenean eskuizkribura jo.

Gramatika bakoitzaren metahizkuntza nagusia desberdina denez —*BI*koa latina eta *GC*koa frantsesa—, arras zaila da testu paralelo luzeak aurkitzea. Haatik, ziur gaude aurkeztuko ditugun terminoen zerrendak eta adibideak aski izango direla bi lanen arteko lotura frogatzeko. Horretarako, hurrengo tauletan lotura hori frogatzeko esanguratsuak iruditzen zaizkigun sailkapenak eta adibideak besterik ez dugu azalduko. Ildo horretatik, paralelo posibleetatik kanpo utzi ditugu latindar ereduan oinarritutako gramatikagintza zaharrean guztiz ohikoak diren sailkapenak eta terminoak, hala nola deklinabidearen sei kasuak; izan ere, halakoetan antzekotasunak aurkitzeak ez digu ezer ziurrik esaten bi testuen arteko erlazioari buruz, tradizio komun baten isla besterik ez bailuke erakutsiko. Adibideei dagokienez, Urtek *BI*tik kopiatzen edo egokitzen dituen adibide adierazgarriak eta errepikatzen dituen adibide-segidak hartu ditugu kontuan eta tauletan azaldu.

[25] Eskuizkribuko eta *BI*ko testuei gutxieneko egokitze grafikoak egin dizkiegu: puntuazioaren eta letra larrien erabilera gaurkotu dugu, laburdurak osatu ditugu, eta frantsesezko hitzen banaketa eta azentuazioa eguneratu ditugu; halaber, <i> eta <u> kontsonantikoak <j> eta <v> aldatu ditugu, hurrenez hurren, eta *BI*ko latinezko hitzei tilet eta diakritikoak ezabatu dizkiegu.

## 4.1 Izenen akzidenteak

Urteren gramatikari hasiera ematen dion ortografiako atalaren (*GC*, 1-12]), Aita Gurearen (13-15. or.) eta gaikako hiztegien ondoren (15-37),[26] izen eratorrien zerrenda batzuk datoz, orain arte euskalarientzat azalpen gaitzeko deitura zutenak: *accident*. Hurrengo taulan ikus dezakegu zerrenda horien —eta deitura horren— iturria zein den, nahiz eta Urtek ez dituen *BI*k eskainitako akzidente mota guztiak baliatzen.

| *BI*, 9-10 | *GC*, 37-55 |
|---|---|
| **De accidentibus nomini** | |
| Primitiva | |
| • Collectivum | |
| • Fictitium | |
| • Interrogativum | Accident interrogatif |
| • Redditivum | Accident redditif |
| • Numerale | Accident numeral[27] |
| ○ Cardinale | |
| ○ Ordinale | Accident numeral ordinal |
| ○ Distributivum | Accident numeral distributif |
| ○ Partitivum | Accident numeral partitif |
| ○ Universale | Accident numeral universel |
| ○ Particulare | Accident numeral particulier |
| Derivativa | |
| • Verbale | |
| • Patrium | Accident de patrie national |
| • Gentile | |

[26] Nomenklatura hauen zati baten iturria Maugerren frantses gramatikan aurkitu zuen Bilbaok (2008). Hala ere, artikulu hau amaitzen ari ginelarik, ohartu gara bai zati horiek, baita Urteren gramatikako 15-37. orrialdeen bitarteko gehienak ere, Guillaume Quiquerren *Colloque français et breton* lanean agertzen direla (1626tik aurrera hainbat edizio eta bertsiotan argitaratua). Urtek zuzenean azken obra honekiko zorra ala Quiquerren iturriren edo hartzekodunen batekikoa izan zuen hurrengo lan baterako utziko dugu.

[27] Izenburu honen azpian zenbaki kardinalak sartzen ditu.

| | |
|---|---|
| • Patronymicum | |
| • Diminutivum: ut, *Regulus*, *popellus*, *majusculus*, *minusculus*. | Accident diminutif<br>roytelet, *erreguetçhóa* […]<br>minusculus, *ttipittoa* ou *çhumetçhóa*<br>majusculus, *handitçhoa*, *handiçhcóa* |
| • Possessivum: ut, *Herilis*, *servilis*, *regius*, *paternus*. | Accident possessif<br>[…]<br>magistral, *naussizcóa*<br>servil, *sehizcóa*<br>royal, *erreguezcóa*<br>de père, paternel, *aitazcoa*[28]<br>de maître, de chez le maître, *naussiareneticacoa* ou *naussiarenecóä*<br>de serviteur, de chez le serviteur, *sehiareneticacoa* ou *sehiarenecóa*<br>de roy, de chez le roy, *erreguerenecoa* ou *erreguereneticacóa*<br>de père, de chez le père, *aitarenecóa* ou *aitareneticacóa* |
| • Materiale | Accident materiel |
| • Locale: ut, *Hortensis*, *agrestis*, *marinus*, *montanus*. | Accident local |
| • Adverbiale | Accident adverbial |
| • Participiale | Accident participal |
| • Et quae in *lis* exeunt à verbis deducta | Accident tiré du verbe |
| | Accident tiré du nom |

*BI*n azkeneko “Accident tiré du nom” falta da, baina baliteke Urtek gorago agertu aditzetik eratorritakoak oinarri hartuta asmatzea; ohar bedi atal labur hori eskuizkribuan geroago erantsia dirudiela. Bestalde, aditzetik eratorritakoen artean “ornatilis, *edergarria*” sarrera kausitzen dugu (*GC*, 42); atal horretan latinezko sarrera-burua duen bakarra da, baina ez da *BI*ko adibideetan agertzen.

[28] de père, paternel, *aitazcoa*] esk. *du pere aitazcoa. paternel*.

## 4.2 Izenen konparazioa

| *BI*, 32-36 | *GC*, 53-55 |
|---|---|
| **Comparatio nominum** | **Comparaison des noms** |
| Gradus comparationis sunt tres | |
| • Positivus | • Degrez positif, *gogorra*, dur |
| • Comparativus | • Degrez comparatif, *gogorrago*, plus dur |
| • Superlativus | • Degrez superlatif, *gogorrena*, très dur, le plus dur |
| Comparatio inusitatior | |
| Comparatio anomala | Comparatif anomale |
| Comparatio defectiva | |
| | Comparatifs et superlatifs d'adverbes |
| Comparationum typus | Type generalle de la declinaison du comparatif |

Bi lanetako azken puntuan gradu positibo, konparatibo eta superlatiboaren deklinabidea aurkezten da. *BI*n taula baten bidez azaltzen dira hiru graduek sei kasuetan hartzen dituzten atzizkiak; *GC*n, aldiz, gradu konparatiboaren atzizkien ondoren, *hobeago* konparatibo "anomaloaren" eta *ederrago* erregularraren paradigmak datoz, superlatiboaren deklinabideari buruzko ohar orokor batekin amaitzeko. Horren aurretik, taulan ikusten dugunez, Urtek adberbioen konparatiboei eta superlatiboei buruzko atal bat gehitzen du ("Comparatifs et superlatifs d'adverbes"). Konparazioari eskainitako atalaren ondoren, *BI*n izenordainei (37-40. or.), aditzari (40-59) eta partizipioari (59-62) buruzko atalak datoz; Urtek ez bide zuen haietatik ezer hartu.

## 4.3 Adberbioa

| *BI*, 62-65 | *GC*, 431-437 |
|---|---|
| **De adverbio** | **De l'adverbe** |
| In loco significant, *Hic*, *ilic*, *istic*, *intus*, *foris*, *usquam*, *nusquam*, *ubi*, *ubique*, *ubicunque*, | In loco<br>içi, *hemen* |

| | |
|---|---|
